




Baso eta soro artean, Itzagaren gerizpean sortutako herrixka eta jaurerri txikietan jarduna bor-bor zegoen garai bateko lekuko monumental eta bakar moduan ageri zaio Gergetiaingo eliza bisitariari. Herrixka eta jaurerri horietako asko bezala, erresumako eliz erakunde handien eraginaren pean garatu zen Gergetiain: Leireko monasterioa eta Iruñeko katedrala. Eta eraikuntza erromaniko handiek eragin zuten berrikuntza arkitektonikoaren pean, Toursko San Martini eskainitako parrokia tenpluaren monumentalizazioari ekin zioten XII. mendearen azken urteetan.



Neurri murrizak baditu ere, zalantzarik gabe, proiektu handinahia izan zen, beti murrizta zen komunitate baterako. Baliabideak mugatuak ziren, eta hori agerikoa da, baina egileek asmatu zuten Europako lehen estilo haren funtsari eta hotsandiari eusten. Bosturtekoetan, edo, beharbada, hamarkadetan zehar, lanak poliki egin zuen aurrera absidetik, habearte zati altxatzen, eskema klasikoko erdizutabeak dituen pilare zainduekin eta kanoi-gangarekin. Aldaketa txikiak, batez ere apaintzeko elementuetan nabaritzen direnak, besteak beste, kapiteletan, agerian uzten digute lanak amaitu arte, XIII. mendea jada hasita, maisu hargin desberdinak izan zirela ondoz ondo.



Ayuntamiento de **IZAGAONDOA**
IZAGAONDOko Udala

Tel. 948 338 127

Información: www.izagaondoa.es
izagaondoa@izaga.infolocal.org

Nafarroako  Gobierno
Gobernua  de Navarra

PARA ACCEDER AL INTERIOR ES
IMPREScindIBLE CONTACTAR
PREVIAMENTE CON EL
AYUNTAMIENTO

BARNEAN SARTZEKO,
EZINBESTEKOA DA AURRETIK
HARREMANETAN JARTZEA
UDALAREKIN

Guerguitiáin Gergetiain



Entre bosques y campos de cultivo, la iglesia de Guerguitiáin aparece ante el visitante como testimonio monumental y solitario de un tiempo en que la actividad bullía en pequeñas aldeas y señoríos surgidos a la sombra de la Peña Izaga. Guerguitiáin, como muchos de ellos, se desarrolló bajo la influencia de las grandes instituciones eclesíásticas del reino: el monasterio de Leire y la catedral de Pamplona. Y bajo la renovación arquitectónica que inspiraron sus grandes fábricas románicas se emprendió la monumentalización del templo parroquial, dedicado a San Martín de Tours, en los últimos años del siglo XII.

A pesar de sus reducidas dimensiones, fue sin duda un proyecto ambicioso para una comunidad siempre reducida. Con una evidente limitación de recursos, sus artífices supieron mantener sin embargo la esencia y magnificencia de aquel primer estilo europeo. A lo largo de lustros, quizá décadas, la obra avanzó lentamente desde el ábside, levantando la nave tramo a tramo, con sus cuidados pilares con semicolumnas de esquema clásico y su bóveda de cañón. Pequeños cambios, perceptibles sobre todo en elementos decorativos como los capiteles, nos revelan la sucesión de diferentes maestros canteros hasta la conclusión de los trabajos, ya iniciado el siglo XIII.




La anti-gua iglesia de San Martín está indisolublemente ligada al nombre de un maestro que, de manera excepcional en el románico, quiso dejar constancia de su responsabilidad en uno de los capiteles del interior, con la inscripción "PETRUS ME FECIT" (me hizo Pedro).

Petrus fue el encargado de culminar las obras del templo, incorporando a la fábrica las señas más características de un estilo muy personal, tosco pero variado y ambicioso en lo decorativo. Los capiteles de la mitad occidental de la nave y la portada muestran sus originales diseños ornamentales de tallos vueltos en volutas, hojas en espiga, rostros humanos y pequeños animales. Debíó de llegar a Guergutiáin tras haber acabado la cercana iglesia de Vesolla. Pero aquí incorporó nuevas soluciones inspiradas ya en rasgos del primer gótico, patentes especialmente en el diseño de los capiteles y las columnas de la portada.

Guergutiáin nunca dejó de ser una pequeña aldea de campesinos. Ello favoreció que el templo mantuviese prácticamente intacta su fábrica románica a lo largo de los siglos, afectada únicamente por la adición de la sacristía, la reconstrucción de la bóveda y el levantamiento de algunos refuerzos en la cabecera. Tras quedar despoblado y sufrir un grave deterioro, en 2012 el Gobierno de Navarra emprendió su rehabilitación. Consolidada la estructura y recuperado su valor artístico e histórico, el templo acoge de nuevo al visitante invitándolo a adentrarse y disfrutar de su historia secular.



San Martingo garai bateko eliza maisu baten izenari lotuta dago banandu ezin den eran, ezohiko moduan erromanikoan, bere erantzukizunaren berri utzi nahi izan zuena barneko kapiteletako batean, "PETRUS ME FECIT" (Petrik egin ninduen) idazkuna jarrita.



Petrus arduratu zen tenpluko lanak bururatzeaz, eraikuntzari oso estilo pertsonal baten ezaugarri bereizgarrienak emanda, landugabea baina askotarikoa eta handinahia, apaindurei zegokienez. Habeartean, mendebaldeko erdian, eta ateladan apaindura diseinu originalak agari dira: zurtoinak kiribilduretan bilduta, hostoak buruxketan, giza aurpegiak eta animalia txikiak. Ziur asko, handik gertu dagoen Besollako eliza amaitu eta gero iritsiko zen Gergetiainera. Baina azken honetan, lehen gotikoko ezaugarrietan ideia hartutako konponbide berriak aplikatu zituen, batez ere ateladako zutabeen eta kapitelen diseinuan ikusten direnak.

Gergetiainek ez zion inoiz utzi nekazarien herrixka txiki bat izateari. Horrek lagundu zuen tenpluak ia ukitu gabe eustea eraikuntza erromanikoari mendeetan zehar, soil-soilik eragin baitzion sakristia gehitzeak, ganga berreraikitzeak eta aldare nagusiaren aldean zenbait sendogarri altxatzeak. Jenderik gabe gelditu eta nabarmen hondatu eta gero, 2012an, Nafarroako Gobernuak berritzeari ekin zion. Egitura egonkortuta eta balio artistikoa eta historikoa berreskuratuta, tenpluak barnean sartzera eta hainbat mendetako historiaz gozatzera gonbidatuta hartzen du berriro bisitaria.